



**ZUZENBIDE ZIBILA**  
**ESKUBIDE TXIT PERTSONALAK**  
Guraso boterea: administrazioaren kontuak ematea eta emantzipazioa

Mikel Mari KARRERA EGIALDE

Balear Irltako Probintzia Audientzia (4. Sekzioa)  
Epaia 2010/09/07 (CENDOJ SAP IB 1669/2010) (AC 2010\1367)  
Eskuratu eta irakurri

**Pertsonak eta harremanak**



**Egitateak**

- < 1987 **Ezkontza** Maria eta Florencio ezkontzen dira.
- 1987/01/23 **Umea izan** Camino jaiotzen da: Maria eta Florencio dira gurasoak.
- tartean **Lan istripua Mariak** Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.
- 1993/07/01 **Testamentua Mariak** Herentziako ondasunen **administratzaile** Florencio izendatzen da. **Muga:** xedatzeko debekua, ez bada Caminoren alde edo behar larriagatik.
- 1993/07/12 **Maria hil** Ondasuna (eskubidea): lan-istripuagatik zegokion kalte-ordaina. Ondoren, Camino bere aitaren etxera joaten da bizitzera eta hari dagokion umezurtz-pentsioa kobratzen hasten da Florencio.
- 2002/07/25 **Gurasoaren etxetik alde egin Caminok** Borondatez joaten da bere bikotearekin bizitzera, 15 urte bakarrik izanik.
- 2002/08/01 **Giza Zerbitzuei berri eman Florenciok** Adierazpenak: (1) Camino etxera bueltatzea ez duela behartuko; (2) Zaintza-etxe batean sartzea onartuko lukeela; (3) Emantzipazioa emango diola 16 urte betetzean.
- 2003/01/23 **Emantzipatzeko adina** Caminok, 16 urte betetzean, etxetik kanpo bizitzen jarraitzen du aitaren adostasunarekin.
- 2005/01/23 **Adin nagusia** Caminok 18 urte betetzen ditu. Caminori zegokion umezurtz-pentsioa kobratzen jarraitu du Florenciok oraindaino.
- 2007/04/-- **Kontuak emateko eskaera** Kontuak eskatzen dizkio Caminok Florenciori.



## Arazo juridikoa

### Eraentza orokorra

**Besteren ondasunak administratzen** dituen pertsona orok, kontuak eman behar dizkio ondasun horien titularrari: *Todo mandatario está obligado a dar cuenta de sus operaciones y a abonar al mandante cuanto haya recibido en virtud del mandato, aun cuando lo recibido no se debiera al segundo* (KZ 1720. art.).

### Eraentza berezia

**Guraso boterea** amaitzean, umeak, hala nahi izanez gero, bere gurasoei haren ondasunen administrazioari buruzko kontuak eska diezaieke: *Al término de la patria potestad podrán los hijos exigir a los padres la rendición de cuentas de la administración que ejercieron sobre sus bienes hasta entonces. La acción para exigir el cumplimiento de esta obligación prescribirá a los tres años* (KZ 168. art.).

### Epea

Eskaera egiteko epea ezartzen da, izaeraz **preskripziozkoa: hiru urte**.

Kasuan eztabaidatzen dute **noiz hasi kontatzen**: (1) 16 urte bete zituenean; edo (2) 18 urte bete zituenean. Lehenengo data hartuz gero, eskaera egiteko epea jadanik pasa (**preskribatu**) da; ordea, bigarrena abiapuntutzat jarriz, eskaera epe barruan egin da.

## Oinarri juridikoa

### Guraso boterea amaitzea

Kontatzen hasteko data da guraso-boterea amaitzen den eguna: *Al término de la patria potestad* (KZ 168. art.).

**Moduak** Besteak beste, guraso-boterea emantzipazioz amaitzen da: *La patria potestad se acaba: 2º Por la emancipación* (KZ 169. art.).

**Emantzipazioa** Modu desberdinetan ematen da: *La emancipación tiene lugar: 1º Por la mayor edad. 2º Por el matrimonio del menor. 3º Por concesión de los que ejerzan la patria potestad. 4º Por concesión judicial* (KZ 314. art.).

**Emantzipazio berezia** Familia-etxetik ateratzeak ere emantzipazioa badakar: *Se reputará para todos los efectos como emancipado al hijo mayor de dieciséis años que con el consentimiento de los padres viviere independientemente de éstos. Los padres podrán revocar este consentimiento* (KZ 319. art.).





## Ustezko emantzipazioa

Emantzipazioa eman dela uste izan dezake gurasoak hala ez izan arren.

**Emantzipatzeko borondatea** Aitak adierazi du emantzipatzeko borondatea baina:

(1) Ez du araututako prozedura jarraitu: *Para que tenga lugar la emancipación por concesión de quienes ejerzan la patria potestad se requiere que el menor tenga dieciséis años cumplidos y que la consienta. Esta emancipación se otorgará por escritura pública o por comparecencia ante el Juez encargado del Registro* (KZ 317. art.).

(2) Guraso-boterea baliatzen jarraitu du, umezurtz-pentsioa bere menpekoaren izenean kobratu baitu; hain zuzen ere, emantzipatzeak portaera hori etengo luke. Arau gisa, zuzenbideko printzipio orokor bat aplikatzen da: inor ezin da bere egintzen aurka joan (*venire contra factum proprium non valet*). Ondorioa prozesala du: judizioan ezin du portaera aldatu eta kontrakoa alegatu (esaterako AGE 2007.03.27, RJ 1982).

**Egitatezko emantzipazioa** Berezitasuna da egitatezko egoera: formalki edo ofizialki egiaztatu gabea. Juridikoki emantzipatu gabe familia-etxetik bizitzeak ez ditu emantzipazioaren ondorio juridiko guztiak sortzen, ez baita benetako emantzipazio juridikoa eta gurasoek, edozein momentuan, egitatezko adostasuna atzera bota eta behartu dezakete umea etxera bueltatzea. Arauaren aurrekaria (1981. urtean derogatutako KZ 160. art.) kontuan hartuz, adingabearen gaitasuna zabaltzen da baina guraso boterepean jarraituz, benetako emantzipaziorik gabe. Beraz, zalantza egonik ea kontuak eskatzeko epea egitatezko emantzipazioak abiarazten duen edo ez, adingabearen interesen aldeko joera (zuzenbideko printzipio orokorra) baliatu behar da: *la generalización del interés superior del menor como principio inspirador de todas las actuaciones relacionadas con aquél* (LO 1/1996). Ondorioz, benetako emantzipazio juridikoa gertatu arte ez da hasten kontuak eskatzeko eskubidearen epea.

## Epea

Izaeraz preskripziozkoa da, kaduzitatezkoa ez.

(1) Hitzez hitzeko interpretazioa: arauak **argi** esaten du (*la acción prescribirá*) eta ez dago beste interpretaziorik egin beharrik (*in claris non fit interpretatio*).

(2) Gainera, **interpretazioa** egin beharko balitz ere, preskripzioaren aldekoa izan beharko luke. Zergatik? Eskubidea baliatzeko aukera murrizten du epea jartzeak, eta eskubide-murrizketa oro, zentzu hertsian interpretatu behar da, alegia, eskubidea baliatzeko aukera gehien ematen dituen interpretazioa (eskubidea gutxien estutzen duena) hartu behar da. Bietatik, kaduzitateak eskubidea baliatzeko aukera gehiago estutzen du preskripzioak baino, kaduzitatean hiru urte pasa eta kitto izango bailitzateke, eta preskripzioan berriz kontatzen





hasteko aukerarik egongo bailitzateke. Beraz, arauaren interpretazio hertsia ere preskripzioaren alde jokatzen du.

### Beste argudioak

Epaian agertu ez, baina eraiki daitezkeen beste argumentazio-bideak:

**Aitaren aldekoa** Emantzipatzeko 314. artikuluan aurreikusten diren bideak, kanpo-harremanetan egin daitezkeen egintzak babesteko dira; hain zuzen, horregatik dokumentu publikoan jaso (adin nagusitasuna izan ezik, egitate naturala delako) eta Erregistro Zibilean jendarteratu edo publikatzen dira. Horrela, hirugarreni segurtasun juridikoa ematen zaie adingabeko gaitasunari buruz. Aldiz, egitatezko emantzipazioak guraso eta umearen arteko barne-harremanean du eragina. Bi eremu horiek bereizten badira, arazoa da ea gurasoa kumeari kontuak ematea barne-harremaneko gaia den edo kanpo-harremanen eremuan txertatzen den. Barne-harremanen erlazioan argi dago aitaren eta alabaren portaeran emantzipazioa onartu dela; eta kontuak ematea eremu horretakoa bada, eragin horretarako hamasei urterekin emantzipatu da alaba.

**Alabaren aldekoa** Aitak emantzipazioa eman badio alabari, ondarea administratzeko aukera ere eman behar dio, ezin baita ulertu emantzipazioa administratzeko ahalmenak eskuratu gabe. Horregatik, aitak ez badio alabari administratzeko ahalmenik pasa, ez dio benetako emantzipaziorik ere eman, gauzak direna baitira eta ez adierazten dena.

**Epea** Borondatez eskubideak baliatzeko epe bat jartzearen arrazoia segurtasun juridikoa bermatzea da, borondatezko aukeraz gabetzeraino sartzio zibil gisa. Kontuak eskatzeko aukera ezartzen denean ere, segurtasunak eskatzen du epea finkoa izatea.